

III. ERANSKINA

Jarduera guztietan berdin kontuan hartu beharrekoak

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

1. Jarduera hasten den urtean eta hurrengoan, pertsona fisikoek errentaren gaineko zergaren zenbatespen objektiboko etekin garbia, hots, zeinu, indize edo moduluak eta indize zuzentzaileak I. eta II. eranskinetako jarraibideen arabera aplikatzen ateratzen dena, %30 eta %15 murriztuko da, hurrenez hurren. Murriztapen hori ez da aplikatuko jardueraren oinordetza edo jarraipen kasuetan.

2. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzen duten enpresa jardueretan suterik, uholderik, hondoratzerik edo ekipo industrialean matxura handirik edo antzeko ohiz kanpoko egoerarik gertatzen bada, eta horrek jarduerari gorabehera larriak ekartzen badizkio, interesdunek zeinu, indize edo moduluak murriztea eskatzen ahalko diote zerga arloko eskumena duen departamentuari urte bakoitzeko abenduaren 31 arte. Horrekin batera, bidezkoak diren frogak aurkeztu beharko dituzte, eta gorabehera horiek direla kausa jasotako edo jaso beharreko kalte-ordainen berri ere eman beharko dute, halakorik bada. Gorabeherak urteko azken hiruhilekoan gertatuz gero, hurrengo urteko lehen hiruhilekoa bukatu baino lehen aurkezten ahalko dute eskaera.

Arestiko paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, egoera bat larritzat jotzeko, haren izaerari eta/edo iraupenari begiratuko zaio, eta, betiere, haren iraupena hogeita hamar egun naturalekoa izan beharko da gutxienez.

Eraginkortasuna egiaztatu ondoren, Zerga Kudeatzeko Atalak zeinuen, indizeen edo moduluen murriztapena erabaki dezake, eta aplikagarri izanen den aldia zehaztu.

3. Zeinu, indize edo moduluen modalitatea aplikatzen duten enpresa jardueretan suterik, uholderik, hondoratzerik edo antzeko ohiz kanpoko gertaerarik gertatzen bada eta horiek aipatu jarduera hori burutzeko ohiko prozesuari arrotz zaizkion ez-ohiko gastuak ekartzen badizkio, interesdunek jarduera horren ondorio den etekin garbiari aipatu gastuen zenbatekoa ken diezaiokete. Horretarako, subjektu pasiboek inguruabarraren berri eman beharko diote zerga arloko eskumena duen departamentuari, 2. atalean ezarritako epean berean. Horretarako, frogagiriak aurkeztu beharko dituzte, inguruabarrak eta haien zenbatekoa egiaztatzeko eta, zein den kasua, ohiz kanpoko inguruabar horiek direla-eta zenbateko kalte-ordaina jaso behar duten edo jaso duten finkatzeko.

Zerga kudeatzen duen atalak etekinaren murriztapenaren eta horren zenbatekoaren arrazoia egiazkoa denetz egiaztatu dezake.

Zenbaki honetan aurreikusten den murriztapena ez da bateragarria aurreko atalean ezarri denarekin, ondare elementu berberak direnean.

BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA

Araubide erraztua aplikatu behar zaien enpresa jardueretan suterik, uholderik, hondoratzerik edo ekipo industrial horietan matxura handirik edo gisako ohiz kanpoko inguruabarrik gertatzen bada eta horrek jarduerari gorabehera larriak ekartzen badizkio, ohiz kanpoko gorabehera horiek direla-eta indize edo moduluak murriztea nahi dutenek zerga arloko eskumena duen departamentuari eskatzen ahalko diote urte bakoitzeko abenduaren 31 arte, eta, aldi berean, bidezkoak iruditzen zaizkien frogak aurkeztuko dituzte. Gorabeherak urteko azken hilabetean gertatuz gero, hurrengo urteko urtarrilaren 31 baino lehen aurkeztu ahalko da eskaera.

Eraginkortasuna egiaztatu ondoren, Zerga Kudeatzeko Atalak indizeen edo moduluen murriztapena erabaki dezake, eta aplikagarri izanen den aldia zehaztu.

Gainera, aurreko paragrafoetan adierazitako prozedura berari jarraikiz, zilegi izanen da indizeen edo moduluen murrizketa eskatzea jardueraren titularra aldi baterako ezintasun egoeran edo jarduteko legez desgaiturik egon bada 30 egun naturalez jarraian, eta, betiere, bi kasuotan, beste enplegatu bat ez badauka. Horixe bera eskatzen ahalko da jarduera 30 egun naturalez jarraian geldiarazten bada ezinbesteko arrazoiengatik. Aurreko kasuetan, murriztapena eskatzeko, 30 egun naturaleko epea izanen da, adierazitako egoera horietako batean 30 egun natural jarraituko epea igaro eta biharamunetik hasita.

Iragarkiaren kodea: F1802024